



|   |  |                      |
|---|--|----------------------|
| <b>Berdintasunerako<br/>Zerbitzua</b>             |  | <b>Getxoko Udala</b> |
| <b>Gaia: BERDINTASUNERAKO BATZORDEAREN BILERA</b> |  |                      |

**Bilerari buruzko datuak:**

Data: 2012-12-13    Lekua: Santa Clara Jauregia    Ordua: 17:00etatik  
19:00etara

**Bertaratuak:**

Enclave de ciudadanas por Getxo Elkartea: Charo De la Peña

Eskuz-Esku: Isabel Perez

Gizatiar: Marivi Peñaredonda, Carmen Peña

Roda: Clara Lorenzo

Udal Talde sozialista: Teresa Garcia Oviedo, Ines Becares

Talde Popularra: Ana Basilio

Bildu: Maitane Nerekan

EAJ-PNV: Elena Coria

Lehendakaria: Keltse Eiguren

Idazkaria: Idoia Eizmendi

**Falta direnak**

Getxo Enpresa

ELA-STV

**Gai-zerrenda:**

- Azaroaren 25eko kanpainaren balantzea, Emakumeen indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna.
- Ingurumeneko Foroan ordezkaritza
- Galderak eta eskaerak

## **Azaroaren 25eko kanpainaren balantzea**

Berdintasunerako Zerbitzuak antolatutako jarduera desberdinetan izan direnen berri ematen digu:

- Entredos abesbatza: 150 gizon-emakume inguru
- *Gizonezkoak eta emakumeen aurkako indarkeria. Gogoetak eta jardunbideak gizon-taldeen eskutik* hitzaldia: 54 lagun (42 emakumezko eta 12 gizonezko)
- *Sexu erasoak* hitzaldia: 13 lagun (10 emakumezko eta 3 gizonezko)

Ekintza desberdinei buruzko balorazioa positiboa izan da, nahiz eta ostiraleko hitzaldira askoz ere jende gutxiago joan. Jarraian, egindako zenbait iruzkin laburbiltzen dira:

Entredos Abesbatza: *"Jabekuntzako injekzio bat". Oso eszenaratze ona, abestiak eta abestien aurreko azalpenak".*

Gizonezkoei eta indarkeriari buruzko hitzaldia: *"dinamikoa, oso parte hartze ona". "Asmatu dute ibilbide zabaleko pertsona baten eta sortu berriagoa den talde baten arteko kontrastearekin".*

Sexu erasoei buruzko hitzaldia: *"lastima power point-ak funtzionatu ez izana".*

Parte-hartze handiagoa errazteko ostiraletan jarduerarik ez antolatzea hobe izango dela ondorioztatzen da, beste erremediorik egon ezean behintzat (kasu honetan hizlariak egun horretan baino ezin zuen etorri).

### Puntu morea

Puntu moreari dagokionez, Berdintasunerako zinegotziak udalerrian puntu more iraunkorraren kokapena nola kudeatu zen adierazten die taldeei; Enclave elkarteak Batzordearen aurreko bileran egindako proposamena eta talde guztiek bere egin zutena. Behin aukera guztiak baloratuta, Gobernu Taldeak puntu morea Bizkaia zubiko plazan, haurren parkearen inguruan, jartzea erabaki zuen. Ipin aurretik Batzordeko taldeei kontsultatu zitzaien. Enclave elkartearen eta, ondoren, Gizatiar elkartearen ezezko balorazioaren aurrean, bideragarritasuneko teknikariarekin batera kokapen berria aztertu zen eta, azkenean, bizikleten aparkalekutik hurbil dagoen zonan kokatzea erabaki zen. Puntu morea jarri ondoren Berdintasunerako Zerbitzuak Enclave elkartearen korreoa jaso zuela kokapena dela eta beren desadostasuna adieraziz dio Zinegotziak.

Enclave elkarteak azaltzen du bere iritziz, puntua lekuz kanpo geratzen dela, txikia dela eta oinezkoen pasabidetik igarotzen denek soilik ikusten dutela. Kontzentrazioaren egunean bertan Gizatiar elkarteko emakume askoz ez zutela

ikusitako ereduak aipatzen du. Kontzentrazioari dagokionez, Enclave elkarteak nahiz PSE taldeak ez dute ulertzen kontzentrazioa puntuan bertan zergatik ez zen egin. Gizatiar elkarteak aipatzen du ez zitzaiela beharrezkoa iruditu puntu morean bertan egitea, baina handik hurbil kontzentratu zirela.

Udalerrian puntu more bakarria egotea aski den edota auzo bakoitzean bat egotea beharrezkoa den eztabaidatzen dute. Bestetik, PSE taldeak Berdintasunerako Zerbitzuak ez-ezik Batzordeko gainerako pertsonak ere puntua konpromisotzat hartzeko beharra planteatzen du.

Azkenean, honako hau erabakitzen da:

- Hirigintzako zerbitzu teknikoek zirkulua zabaltzeko daitezkeen galdetza (irisgarritasun-arrazoiengatik).
- Gobernu Taldean beste puntu bat Algortan jartzeko aukera baloratzea eta, baieztatu kasuan, zerbitzu teknikoekin haren balizko kokapena kontsultatzea (Telletxe-Torrene kantoia aipatzen da puntua jartzeko balizko guneak).

### **Ingurumeneko Foroan ordezkaria**

Zinegotziak Ingurumeneko Foroan parte hartuko duen emakumeen elkarte berri bat izendatzeko beharra adierazten du. Orain arte, txandakatuz, Roda, Gizatiar eta Eskuz esku elkarteek hartu dute parte.

Elkarte bakoitzak bere taldean baloratuko du eta Berdintasunerako Zerbitzuari adieraziko diote parte hartzeko prest dauden.

### **Galderak eta eskaerak**

#### HAPN berrikusteko lan-taldeetan parte hartzeko gonbita

Gizatiar elkarteak lan-taldeetan parte hartzeko jaso duten gonbitari buruzko informazioa eskatzen du. Zinegotziak adierazten du Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren (HAPN) berrikuspen-prozesuan herritarren parte-hartzeko eskubidea bermatzeko Getxoko Udalak sustatzen duen prozesu parte-hartzailea dela.

Eskaera egiteko epea 2013ko urtarrilaren 8ra arte luzatu da eta web-aren bitartez egin daiteke.

Halaber, Hirigintza-Planeamenduko Batzorde Aholkularian udalerriko emakumeen partaidetza aurreikusten dela gogorarazten da; beraz, gonbidatu egiten da.

#### Batzordean parte hartzea

PSE taldeak Batzordean lantzen diren hainbat gai posta elektronikoko bitartez ere landu daitezkeela planteatzen du eta Batzordearen berezko xedeetara hurbiltzea falta dela. Bere ustez, III. Plana tresnatzat harturik beharrezkoa litzateke haren

garapenari buruzko diagnostikoa egitea; zer egin den eta zer ez eta zergatik aztertzea, eta beharrezkoa izanez gero, eguneratzea.

Batzordearen beraren lan-kronograma egitea proposatzen du eta, beharrezkoa izanez gero, bilera-kopurua gehitzea.

Berdintasunerako zinegotziak urtean aurreikusitako bilera-kopurua 6koa dela erantzuten du, baina araudian bilera gehiago deitzea eskatzeko modua jasota dagoela. Gai-zerrendan puntuak gehitzeko aukera ere badela, nahiz eta ez den egiten.

Halaber, Berdintasunerako Zerbitzuak urtean zehar gauzatuko dituen ekintzen kronograma ematen duela gogorarazten du eta, baita, zer egin den eta zer ez den egin zehatz-mehatz adierazi ere. Halaber, urte hasieran Berdintasunerako Planaren eta horren urteko kudeaketa-planaren betearazpen-mailari buruzko ebaluazioa ere egiten da.

PSE taldeko ordezkariaren iritziz, jarraipena zer denari buruzko kontzeptu desberdinak daude. Bere ustez, informazioa eskaintzen da. Ekintzen azterketa eta horiei lehentasuna ematea (beharren eta aurrekontuen arabera) litzateke hurrengo urratsa.

Berdintasunerako zinegotziak eskaera horrek harritu egiten duela adierazten du; izan ere, gutxienez, aurreko legegintzalditik informazio xehatua eskaini izan da Batzordea osatzen duten pertsonen Planaren sustapenean parte hartzea errazteko. Informazioa aurrerapen handiagoz pasa daitekeela planteatzen du Batzordera egoki iritzitako ekarpen edo galdera oro ekarri ahal izateko.

#### Historiako beka

Getxoko historiari ekarpenak egin dizkien emakumeen ekarpenei buruzko II. Bekaren deialdian *San Nikolaseko lehenengo andereñoak eta beren ekarpena ikastolaren hastapenetan (1963-1969)* proiektua hautatu da, Aintzane Rincon eta Arantza Ancizar andereek aurkeztua.

Behin betiko erabakia hartzeko, hilabetez itxarotea beharrezkoa izango da, norbaitek helegitea jarri nahi izango balu ere. Ondoren, beka irabazi duen proiektua zein izan den argitaratuko da.

#### **Hurrengo bilera**

Hurrengo bilera urtarrilaren 24ean, arratsaldeko 17:00etan egingo dela erabakitzen da.

Lantzeko beste gairik ez dagoenez, bilera amaitutzat ematen da.